Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

DEKRETU ZK./DECRETO NUM.
2021004191
22/11/2021

| Erref/Ref: | **2021/5628P** |
|---|---|
| Proz/Proc: | **Expedientes personales** |
| **RECURSOS HUMANOS Y CONTRATACION** | |

## Antecedentes de Hecho

Con fecha de 30 de junio de 2021, se publica en el Boletín Oficial del País Vasco, el acuerdo adoptado en su sesión de 15 de junio de 2021, del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2021.

De conformidad con lo establecido en la distribución del presupuesto para acciones locales de promoción de empleo 2021 tipos 1 y 2 por comarcas naturales/municipios, está presupuestada una subvención de 224.999,85 € para el municipio de Leioa, quedando pendiente de confirmar por Resolución del Director General de Lanbide, la concesión de la subvención referida.

## Fundamentos de derecho

Considerando las atribuciones en materia de personal que se otorgan a la Alcaldía en el art. 21.1. h) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local.

De conformidad con la exposición fáctica y jurídica que antecede, se eleva propuesta a la Alcaldía

**XEDATZEN DUT:** **DISPONGO:**

**PRIMERO:** Aprobar las bases reguladoras y la convocatoria que han de regir la selección de las personas encargadas de la ejecución del proyecto denominado "Auzoko Laguntzaileak, que se adjunta como anexo al presente decreto.

**SEGUNDO:** Designar como miembros titulares y suplentes del Tribunal que valorará el proceso selectivo a los siguientes:

Presidente:

- titular: Chiara Camarón Pacheco (Secretaria del Ayto. de Leioa).
  - suplente: Alexander Mendiola Castro (TAE RRHH)

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

Vocales:

- titular: Virginia Velez Ruiz (Técnico del Ayto. de Leioa)
- suplente: Yolanda Pico Lete (Técnico del Ayto. de Leioa)

- titular: Eider Sarría Gutiérrez (Interventora del Ayto. de Leioa)
- suplente: Argi Hernandez López (Administrativa del Ayuntamiento de Leioa)

- Secretario: Alex Mendiola Castro (TAE RRHH)

Suplente: Itziar Llanos Bouza (Administrativa del Ayuntamiento de Leioa)

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

**ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZAK ABIAN JARTZEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK.**

Lehena. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da hamazazpi pertsona kontratatzea “Auzoko Laguntzaileak” eta “Udalerriko ardatz estrategikoak sustatzea” izeneko proiektuak aurrera eramateko, 2021. urterako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen tokiko enplegua sustatzeko ekintzetarako diru-laguntzen deialdiaren barruan, 2021eko ekainaren 16ko ebazpen bidez argitaratua.

Bigarrena. Kontratazioaren baldintzak

Oinarri hauen bidez, aldi baterako langileak kontratatzeko hautaketa-prozesua arautzen da, honako lanpostu hauek baldintza hauetan bete ditzaten:

**PROGRAMA: oAUZOKO LAGUNTZAILEAK**

| Lanpostua | Auzoko Laguntzaileak |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 59421076; Jagoleak oro har |
| Kontratu-kopurua | 4 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |
| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
| Jardunaldi-mota: | % 87,50 |

| Lanpostua | Arotza |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 71311049: Arotzak, oro har |
| Kontratu-kopurua | 2 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |
| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
| Jardunaldi-mota: | % 72,50 |

| Lanpostua | Pintorea |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 72311035: Pintoreak edota papereztatzaileak |
| Kontratu-kopurua | 4 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |
| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
| Jardunaldi-mota: | % 72,50 |

**PROGRAMA: LEIOAKO UDALERRIKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA**

| Lanpostua | Enpresen/Saltokien teknikaria |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 36131039: Enplegatu administrariak, oro har |

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

| | |
|---|---|
| Kontratu-kopurua | 1 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |
| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
| Jardunaldi-mota: | % 80 |

| Lanpostua | Turismo-teknikaria |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 26301011: Turismo-garapenerako agenteak |
| Kontratu-kopurua | 1 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |
| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
| Jardunaldi-mota: | % 80 |

| Lanpostua | Laguntza-teknikaria |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 37131069: Gizarteratze-teknikaria |
| Kontratu-kopurua | 3 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |
| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
| Jardunaldi-mota: | % 74 |

| Lanpostua | Herritarren partaidetzarako teknikaria |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 282: *Soziologoak, historialariak* eta gizarte-zientzietako beste profesional batzuk |
| Kontratu-kopurua | 1 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |
| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
| Jardunaldi-mota: | % 80 |

| Lanpostua | Euskara-dinamizatzailea |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 29231065: Itzultzaileak, oro har |
| Kontratu-kopurua | 1 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |
| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
| Jardunaldi-mota: | % 79 |

| Lanpostua | Artxibategiko administraria |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea Lanbiden | 42.101.011: Artxibategiko edota liburutegiko enplegatu administrariak |
| Kontratu-kopurua | 1 |
| Kontratu-eredua | Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua |

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

| Kontratuaren iraupena | 6 hilabete |
|---|---|
| Jardunaldi-mota: | % 97,10 |

Hirugarrena. Funtzioak

Hauek dira lanpostuen oinarrizko funtzioak:

**PROGRAMA: AUZOKO LAGUNTZAILEAK**

Lanpostua: Auzoko Laguntzaileak

- Herritarrekin bitartekari aritzea, administrazioarekiko komunikazioa errazteko
- Herritarrei hondakinak kontrolatzeko neurriei, bide-zirkulazio arduratsuari eta animaliak edukitzearen gaineko araudiari buruz informatzea eta sentsibilizatzea.
- Herritarren kexak, iradokizunak, etab. jasotzea eta kudeatzea.

Lanpostua: Arotza

- Auzo-laguntzaileen bitartez edo beste modu batzuetara (udaltzaingoa, herritarrak, bulego teknikoa…) antzeman diren egurrezko altzari hondatuak edo narriatuak konpontzeko beharrezkoak diren ekintzak:
    - Lixatzea
    - Osagaiak ordezkatzea
    - Eustea, torlojuak jartzea
    - Bernizatzea

Lanpostua: Pintoreak

- Auzo-laguntzaileen bitartez edo beste modu batzuetara (udaltzaingoa, herritarrak, bulego teknikoa…) beharrezkotzat antzeman diren margotze-lanak
    - Barruko hormak luzitzea, saneatzea eta margotzea
    - Kanpoko hormak eta fatxadak margotzea
    - Bide-markak margotzea
    - Bankuak margotzea

**PROGRAMA: UDALERRIKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA**

Lanpostua: Enpresen/Saltokien teknikaria

- Leioa Bidean banaketa-zerbitzuari atxikitako saltoki berriak erakartzea
- Egindako eskaerak eta ordutegi-tarteak kontrolatzea
- Saltokien jardunarekin lotutako ekintzak dinamizatzea

Lanpostua: Turismo-teknikaria

- Turismo-sistemaren osagaiak identifikatzea
- Egungo egoera turistikoaren diagnostikoa
- Ildo estrategikoak zehaztea, ekintza-planen bitartez
- Beste udalerriekin burutu litezkeen sinergiak identifikatzea, lankidetza-sareak osatzeko

Lanpostua: Laguntza-teknikaria

- Egoera zaurgarrian eta gizartetik baztertuta eta/edo baztertuta egoteko arriskuan daudenei osoko arreta ematea, gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko, haien behar indibidualak kontuan izanik.
- Pertsona horiek erabateko herritartasuna lor dezaten sustatzea, lan-merkatuan sartuz, haien autonomia bultzatuz, laguntza pertsonalizatua emanez eta haiei egokitutako azpiegiturak eskainiz.
- Autonomia, ahalduntzea eta garapen pertsonala sustatzea
- Egonkortasun pertsonala, elkarbizitza orekatua, gizarteratzea eta partaidetza soziala sustatzeko beharrezkoak dituzten alderdiak garatzea, batik bat haien egunerokoan.
- Lurraldean gizarte-bazterketa sortzen duten faktoreak eta gizarte-bazterketako egoerak antzematea, eta horien diagnostikoa egitea.
- Gizarteratzeko zailtasunak dituztenei aholkularitza teknikoa eta laguntza ematea, gizarte-baliabideak eskuratzea eta gizartean parte hartzea ahalbidetzen dieten jarduerak sustatuz.
- Gizarteratzeko ibilbide pertsonalak proposatzea eta egituratzea.
- Bazterkeria-egoeran daudenei prestakuntza soziala, hezkuntza, lanbide-heziketa eta lanerako prestakuntza ematea, gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko programetan sartzea sustatuz.

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

- Pertsonei euren gizarteratze-ibilbidea egituratzen eta martxan jartzen laguntzea, eta horretan, desabantailan edo gizarte-bazterkerian daudenei lehentasuna ematea.

Lanpostua: Herritarren partaidetzarako teknikaria

- Udalerrian martxan dauden partaidetza-prozesuak berrikustea.
- Aurrekontu irekien partaidetza-prozesua martxan jartzea, ekonomia-arloarekin elkarlanean.
- Hezkuntza eta Herritarren Partaidetza arloarekin elkarlanean aritzea, partaidetza-prozesuak dinamizatzeko.

Lanpostua: Euskara-dinamizatzailea

- Udalaren eskumenekoak diren eta herritarrei zuzentzen zaizkien kartelak eta seinaleak berrikustea
- Euskara sustatu nahi duten dendariekin eta ostalariekin harremanetan jartzea.

Lanpostua: Artxiboetako administraria

- Udalaren argazki-artxiboaren irudiak digitalizatzea.
- Kopiak kontsultatzeko eta/edo eskatzeko izapideak egitea, eta martxan jartzea, herritarren eskura jartzeko.
- Argazki zaharrak eta udalaren interesekoak direnak biltzeko ekintzak ezagutaraztea, eta irudiak eskaneatzea eta izapidetzea (Datuen babesa, eskubide digitalak eta egile-eskubideak bermatzea).

Laugarrena. Hautagaien baldintzak

Onartuak izateko, eta hala badagokio, hautaketa prozesuan parte hartzeko, hautagai guztiek honako baldintza hauek bete behar dituzte nahitaez:

a. Europar Batasuneko kide den estatu bateko nazionalitatea edukitzea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko itunei jarraikiz, langileen zirkulazio librea aplika dakiekeen lurraldeetako nazionalitatea edukitzea.

b. Espainiako eta Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta legez banatuta ez badaude; era berean, euren ondorengoek eta haien ezkontidearenek ere parte hartu ahal izango dute, ezkontideak legez bananduta ez badaude, ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin hori gainditu arren, gurasoen kontura bizi badira.

c. Europar Batasunetik kanpoko herrialde atzerritar bateko nazionalitatea edukiz gero, Espainian bizileku-baimena eta lan-baimena edukitzea.

d. Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez betetzeko oztopo den gaixotasun edo muga fisikorik edota psikikorik ez izatea. Horri dagokiola, minusbaliatuen gizarteratzeari buruzko 13/1982 Legeak ezarritakoa bete beharko da.

e. Diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoen zerbitzuetatik bazterturik ez egotea, eta funtzio publikorako ezgaituta ez egotea.

f. 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko legeak batera ezinezkotzat jotzen duen jarduerarik ez burutzea, kargua hartzen duten egunean.

g. Kontratazioaren unean, lanik ez izatea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailetzat inskribatuta egotea.

h. Talde hauetako baten barruan egotea:

   a. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) titularrak edo onuradunak

   - 35 urtetik beherakoak
   - 45 urtetik gorakoak
   - Iraupen luzeko langabeak. Horri dagokiola, iraupen luzeko langabetzat hartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batean enplegu-

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

eskatzailetzat gutxienez 360 egunez inskribatuta egon direnak, kontratazioaren aurreko azken 540 egunetan zehar.

- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonak. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak eta haien elkarbizitza-unitateko kideak ez ezik, honako hauek ere hartzen dira gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonatzat:
  - Adingabeak babesteko erakundeetatik datozen 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.
  - Drogazaletasun-arazoak edo bestelako mendekotasun-nahasmenduak dituzten eta errehabilitatzeko edo gizarteratzeko bidean dauden pertsonak.
  - Espetxean egonik, euren espetxe-egoeragatik enplegua lortzeko aukera duten pertsonak, baldin eta euren lan-harremana uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 1. artikuluan arautatako lan-harreman bereziaren aplikazio-eremuaren barruan ez badago, eta baita baldintzapeko askatasunean daudenak eta preso ohiak ere.
  - Adingabekoen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan dauden preso adingabeak, baldin eta beren egoeragatik enplegu bat eskura badezakete eta beren lan-harremana uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak onartutako adierazitako Legearen Araudiaren 53.4 artikuluak adierazten duen lan-harreman berezien aplikazio-eremuaren barruan ez badago, eta baita zaintzapeko askatasunean dauden adingabeak eta preso adingabe ohiak ere.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritza eskudunek baimendutako urgentziazko bizitoki-zentroetan ibili diren pertsonak.
  - Desgaitasunen bat dutenak.
  - Familia-erantzukizunak dituzten emakumeak. Familia-erantzukizunak dituzten emakume deritze beren kargura ezkontidea eta/edo 26 urtetik beherako seme-alabaren bat edo 26 urtetik gorako seme-alaba ezinduren bat edo harreran hartutako adingabekoren bat dutenei, betiere familia-unitateko kide bakoitzaren batez besteko errenta ez bada lanbide-arteko gutxieneko soldataren % 75 baino handiagoa. Agiri bidez behar bezala egiaztatu beharko dira aipatutako baldintza horiek.
  - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

i. Leioako Udalak 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdietan kontratatu ez izana, edota 2019ko ekitaldirako bereziki eremu eta udalerribehartsuei zuzendutako enplegua sustatzeko tokian tokiko ekintzetarako laguntzen deialdietan erakunde berak dagoeneko kontratu dituen pertsonak, edo toki-erakundeek, 2014-2020 Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan, 2019ko edo 2020ko ekitaldietarako gazteak kontratatzeko laguntzen deialdietan kontratatu ez izana; Soilik kontrata ditzakete pertsonahoriek baldin eta beste hautagairik ez badago. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta jakinaraziko du inguruabar hori.

Behin hautagaien lehen aukeraketa eginda, eta 2021eko ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako diru-laguntzen deialdian ezarritako baldintzei jarraikiz, kontratazio guztien % 30 Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular edo onuradun direnentzat gorde beharko dira, beste % 40 emakumeentzat eta % 15, berriz, 55 urtetik gorakoentzat. Diru-laguntzen deialdia LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2021eko ekainaren 16an emandako ebazpenaren bidez argitaratu zen, eta ebazpen horrek arautzen du prozedura.

Deialdian eskatutako baldintzak hautaketa-prozesu osoan zehar eta kontratatzeko unera arte bete behar dira.

Jarraian doazen lanpostuen kasuan zehazki, baldintza hauek ere bete behar dira halabeharrez:

**PROGRAMA: Auzoko Laguntzaileak**

Lanpostua: Arotza
- Arotzeriako 2. mailako ofizialtzat gutxienez 12 hilabeteko esperientzia edukitzea, Lanbidek egiaztatuta.

Lanpostua: Pintorea
- Pinturako 2. mailako ofizialtzat gutxienez 12 hilabeteko esperientzia edukitzea, Lanbidek egiaztatuta.

**PROGRAMA: UDALERRIKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA**

Lanpostua: Enpresen/Saltokien teknikaria

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

- Titulu akademikoa: Administrazioaren eta kudeaketaren edo merkataritzaren eta marketinaren arloetako goi-mailako teknikaria.

Lanpostua: Turismo-teknikaria
- Titulu akademikoa: Animazio soziokulturalaren eta turistikoaren edo turismoaren arloetako goi-mailako teknikaria.

Lanpostua: Laguntza-teknikaria
- Titulu akademikoa: Gizarteratzeko Goi-mailako teknikaria

Lanpostua: Herritarren partaidetzarako teknikaria
- Titulu akademikoa: Gizarte eta lege-zientzietako gradua
- Bulegotika-ezagutzak
- Partaidetza-prozesuetan edo talde-dinamiketan gutxienez 3 hilabeteko esperientzia izatea, Lanbidek egiaztatuta.

Lanpostua: Euskara-dinamizatzailea
- Titulu akademikoa: euskaraz egindako unibertsitate-gradua
- Euskara: C-2

Lanpostua: Artxiboetako administraria
- Titulu akademikoa: Erdi-mailako prestakuntza-zikloa edo baliokideren bat.

Bosgarrena. Hautagaiak onartzea

Behin oinarriak onartuta, bost egun balioduneko epea ezarriko da argitaratzeko eta zabaltzeko, prozesu honetan interesa duten pertsonek LANBIDE- Euskal Enplegu Zerbitzuan jasotako datuak eguneratzeko aukera izan dezaten. Eguneratze hori Behargintza Leioan edo erreferentziazko Lanbideren bulegoan egin ahal izango da.

Epe hori amaituta, ezarritako baldintzak betetzen dituzten hautagaiak bidaltzeko eskatuko zaio LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

Behin Lanbidek hautagaiak bidalita, hautaketa-prozesuari hasiera emango zaio, oinarri hauetan xehatutakoaren arabera.

Hautaketa-prozesuari buruzko proben deialdiak eta Balorazio Batzordearen iragarki eta jakinarazpen guztiak udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko dira, baita udalaren web-orrian ere (www.leioa.eu).

Seigarrena. Balorazio Batzordea.

Balorazio Batzordearen osaera udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren web-orrian argitaratuko da, oinarri hauen onarpenarekin batera, eta espezialitate-irizpideei erantzungo die. Batzorde horretako kideak udalaren mende dauden langile funtzionarioen artetik izendatuko dira.
Balorazio Batzordea ezin izango da osatu kideen erdia baino gehiago bertaratu ezean, eta lehendakariak eta idazkariak saioetan egon beharko dute beti. Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketarik egonez gero, lehendakaritzat dihardüenak erabakiko du.

Komenigarri iritziz gero, Batzordeak probetan lantzen diren gaietan adituak direnen laguntza eska dezake.

Batzordekideek ezin izango dute esku hartu, eta hala jakinaraziko diote lehendakariei. Hautagaiek batzordekideak ezets ditzakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Batzordeak arau hauek aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu, baita aurreikusi ez diren gaietan zer egin behar den ere.

Zazpigarrena. Hautatzeko prozedura

Hautaketa-prozesuak fase bakarra izango du, Lehiaketa Fasea, alegia. Balorazio Batzordeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bidalitako hautagaien artean egingo du aukeraketa.

A) Lehiaketa Fasea:

Batzordeak honako alderdi hauek balioetsiko ditu, programa bakoitzean jasotako lanpostuen arabera.

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

Horretarako, ezaugarri sozioekonomikoak eta lan-merezimenduak hartuko ditu aintzat, eta, hartara, Lanbidek bidalitako curriculum vitaeetan jasotako datuak eta hautagaiek bidalitako dokumentazioa aztertuko ditu, merezimenduak egiaztatzeari eta irizpide sozioekonomikoei buruzko atalean zehazten den bezala.

**Balioetsiko diren irizpide sozioekonomikoak:**

1.- Deialdian ezarritakoaren arabera, gutxieneko kontratazio-ehuneko bat izango duen taldeetako batean egotea: Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren titularra edo onuraduna, emakumea edo 55 urtetik gorakoa: 10 puntu talde horietako batekoa izateagatik, eta gehienez, 30 puntu.

> * Irizpide horren baremazioa egiteko, talde horietako batekoa izatea ezin da sartzeko baldintza ere izan, “hautagaien baldintzak” ataleko hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera. Izan ere, kasu horretan, sartzeko baldintzatzat hartuko litzateke eta ez balioesteko merezimendutzat.

2.- Seme-alabak ardurapean: ardurapean duen 26 urtetik beherako seme-alaba edo nagusi ezgaitu bakoitzeko bi puntu emango da, eta 10 puntu gehienez.

3.- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaz bestelako prestazio batzuk kobratzea: 5 puntu, prestaziorik jasotzen ez bada; 2 puntu, langabezia-subsidioa kobratzen bada; eta puntu bat, berriz, langabezia-prestazioa kobratzen bada.

**Merezimendu profesionalak:**

- Prestakuntza: lanpostuarekin lotutako prestakuntzarengatik, puntu 1 emango da 20 ordu bakoitzeko, edo horren zati proportzionala. Gehienez, 5 puntu emango dira.
- Esperientzia: dagokion lanpostuan ezarritakoaz gain egiaztatzen den esperientzia-hilabete bakoitzeko, puntu 1 emango da. Gehienez, 15 puntu emango dira.
- Euskara: B1 maila egiaztatzen duenak 2 puntu jasoko ditu, B2 maila egiaztatzen duenak 4 puntu eta C1 maila egiaztatzen duenak 6 puntu, betiere lanpostuak euskara berezko baldintzatzat ez badu.

Merezimenduak eta irizpide sozioekonomikoak egiaztatzea:

Irizpide sozioekonomikoak egiaztatu eta balioztatzeko honako dokumentazio hau da aintzat hartuko dena:

- Deialdian ezartzen den arabera, ehuneko jakin bat kontratatzea eskatzen den kolektibo batekoa izatea: Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzea edo onuraduna izatea, emakumea, edo 55 urtetik gorakoa. Datu horiek ofizioz egiaztatuko dira, Lanbidek emandako datuen arabera.
- Seme-alabak ardurapean: familia liburua aurkeztuko da, eta dagokionean, ezgaitasun-ziurtagiria.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ez diren prestazioak kobratzea: datu horiek ofizioz egiaztatuko dira Lanbidek emandako datuekin.

Lan-merezimenduak bermatzeko eta baloratzeko, Lanbidek emandako curriculum vitaea hartuko da kontuan.

Zortzigarrena. Ariketak eta merezimenduak kalifikatzea eta Batzordearen proposamena

Deskribatutako lanpostuak betetzeko, hautagai bakoitzak guztira lortu duen puntuazioa kalkulatuko da, hautaketa-prozesuaren bi faseetan lortutako puntuazioak batuta.

Puntuazioak batzean berdinketarik balego, irizpide sozioekonomikoetan punturik gehien lortu duenaren alde egingo da. Berdinketak jarraituz gero, Lanbidek ezarritako taldeen artean, deialdiaren laugarren puntuan ezarritako gutxieneko kontratazioaren ehunekora heldu ez direnak hartuko dira kontuan. Bestalde, deialdian ehuneko horiek jadanik beteta egonez gero, hurrengo hurrenkerari jarraituko zaio: emakumeak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak edo onuradunak, eta 55 urtetik gorako pertsonak. Azken beltzean, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailetzat alta eginda egondako denbora kontuan hartuko da.

Merezimenduak, eta hala badagokio, ariketak kalifikatu ondoren, Batzordeak iragarki-oholean argitaratuko du hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrenda, puntu gehien lortu duenetik hasita. Erabaki horren aurka, hautagaiek erreklamazioa jar dezakete hiru egun baliodunetako epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazio horiek Balorazio Batzordeak ebatziko ditu.
Behin argitaratutako proposamenaren kontrako erreklamazioak ebatzita, Balorazio Batzordeak bere proposamena helaraziko dio organo eskudunari.

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

Bederatzigarrena. Agiriak aurkeztea

Batzordearen akta argitaratu ostean, proposatutako hautagaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte hiru egun balioduneko epean:

a) Zinpeko adierazpena, egiaztatzeko diziplina-espediente bidez edozein administraziotik baztertua edo Euskal Autonomia Erkidegoan eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua ez dagoela eta abenduaren 20ko 32/1983 Legean eta hori garatzen duten legeetan aurreikusten diren bateraezintasun-ziorik ez duela.

b) NANaren eta deialdian eskatutako tituluen fotokopiak, behar bezala konpultsatuta.

Hamargarrena. Kontratazio-proposamena

Behin eskatutako baldintza guztiak egiaztatu ondoren, Batzordeak alkateari bidaliko dio hautatutako pertsonak kontratatzeko proposamena, prozesua hau arautzen duen laguntza-deialdiari jarraikiz.

Hamaikagarrena. Gorabeherak

Batzordeak izango du sortzen diren zalantzak erabakitzeko ahalmena, eta, oinarri hauetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Lehiaketa ondo gauza dadin beharrezkoak diren erabakiak har ditzake.

Deialdiaren oinarrien eta Batzordearen jardueraren ondorioz sortzen diren administrazio-egintzak aurkara daitezke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auziak Arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legean xedaturiko kasuetan eta aurreikusitako era eta epeetan.

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

## BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA LA PUESTA EN MARCHA DEL PROGRAMA DE ACCIONES LOCALES DE PROMOCIÓN DE EMPLEO.

Primera. Objeto de la convocatoria.

Es objeto de la presente convocatoria la selección de diecisiete personas encargadas de la ejecución del proyecto denominado "Auzoko Laguntzaileak" y "Potenciación de los ejes estratégicos del municipio", en el marco de la convocatoria publicada mediante Resolución de 16 de junio de 2021 de la Directora General de LANBIDE- Servicio Vasco de Empleo de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2021.

Segunda. Condiciones de la contratación

Mediante las presentes bases se regula el proceso selectivo para la contratación de personal laboral temporal para la cobertura de los siguientes puestos en las siguientes condiciones:

**PROGRAMA: AUZOKO LAGUNTZAILEAK**

| Puesto | Auzoko Laguntzaileak |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 59421076; Vigilantes en general |
| Nº contratos | 4 |
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |
| Tipo de jornada: | 87,50% |

| Puesto | Carpintero/a |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 71311049: Carpinteros en general |
| Nº contratos | 2 |
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |
| Tipo de jornada: | 72,50% |

| Puesto | Pintores |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 72311035: Pintores y/o empapeladores |
| Nº contratos | 4 |
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |
| Tipo de jornada: | 72,50% |

**PROGRAMA: POTENCIACIÓN DE LOS EJES ESTRATÉGICOS DEL MUNICIPIO DE LEIOA**

| Puesto | Tº Empresa/Comercio |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 36131039; Empleados administrativos en general |
| Nº contratos | 1 |

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

| | |
|---|---|
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |
| Tipo de jornada: | 80% |

| Puesto | Tº Turismo |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 26301011; Agentes de desarrollo turístico |
| Nº contratos | 1 |
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |
| Tipo de jornada: | 80% |

| Puesto | Tº Acompañamiento |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 37131069; Integrador/a Social |
| Nº contratos | 3 |
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |
| Tipo de jornada: | 74% |

| Puesto | Tº Participación ciudadana |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 282; sociólogos, historiadores y otros profesionales en ciencias sociales |
| Nº contratos | 1 |
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |
| Tipo de jornada: | 80% |

| Puesto | Dinamizador/a de euskera |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 29231065; Traductores, en general |
| Nº contratos | 1 |
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |
| Tipo de jornada: | 79% |

| Puesto | Empleado/a administrativo de archivos |
|---|---|
| Código ocupación Lanbide | 42101011; Empleados administrativos de archivos y/o bibliotecas |
| Nº contratos | 1 |
| Modalidad contractual | Contrato temporal por obra o servicio |
| Duración del contrato | 6 meses |

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

| Tipo de jornada: | 97,10% |
|---|---|

Tercera. Funciones.

Son funciones básicas de los puestos de trabajo:

**PROGRAMA: AUZOKO LAGUNTZAILEAK**

Puesto: Auzoko Laguntzaileak

- Intermediación ciudadana para facilitar la comunicación con la administración.
- Informar y sensibilizar a la ciudadanía sobre las medidas de control de residuos, circulación vial responsable, normativa en materia de tenencia de animales.
- Recepción y gestión de quejas, sugerencias, etc. de la ciudadanía.

Puesto: Carpintero/a

- Reparación del mobiliario de madera deteriorado y/o desgastado que haya sido detectado tanto por los Auzoko laguntzaileak como por otros medios (policía, ciudadanía, oficina técnica, etc), realizando las intervenciones que sean necesarias:
    - Lijado
    - Sustitución de elementos
    - Fijación, atornillado
    - Barnizado

Puesto: Pintores/as

- Intervenciones de pintura detectadas tanto por los Auzoko laguntzaileak como por otros medios (policía, ciudadanía, oficina técnica, etc):
    - Lucido, saneado y pintado de paredes interiores
    - Pintado de paredes exteriores y fachadas
    - Pintado de marcas viales
    - Pintado de bancos

**PROGRAMA: POTENCIACIÓN DE LOS EJES ESTRATÉGICOS DEL MUNICIPIO**

Puesto: Tº Empresa/Comercio

- Captación de nuevos comercios adheridos al servicio de reparto Leioa Bidean
- Control de los pedidos realizados y de las franjas horarias.
- Dinamización de actuaciones vinculadas con la actividad comercial

Puesto: Tº Turismo

- Identificación de los elementos del sistema turístico
- Diagnóstico de la realidad turística actual
- Definición de las líneas estratégicas a través de planes operativos
- Identificación de sinergias con otros municipios para la generación de redes de colaboración

Puesto: Tº Acompañamiento

- Atención integral a los procesos de inserción social y laboral de personas en situación de vulnerabilidad y en situación de riesgo y/o exclusión social, prestando especial atención a sus necesidades individuales.
- Fomentar el acceso a la plena ciudadanía de estas personas, a través de la incorporación al mercado laboral, promoviendo su autonomía, mediante procesos de acompañamiento personalizado y de estructuras adaptadas a sus necesidades.
- Promover la autonomía, el empoderamiento y el desarrollo personal
- Desarrollar los elementos necesarios para promover la estabilidad personal, el equilibrio en la convivencia y la inserción y participación social, en especial en su entorno de vida cotidiana.
- Detección y diagnóstico de los factores y situaciones de riesgo de exclusión social en su territorio.
- asesoramiento técnico y el apoyo necesario a las personas con dificultad de integración social, promoviendo actuaciones que les capaciten para acceder a los recursos sociales y permitan su participación social.
- propuesta y articulación de itinerarios de inserción social personales.
- Facilitar una formación social, educativa, profesional y ocupacional a las personas en situación de exclusión, promoviendo el acceso a programas de inserción social y laboral.

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

- Acompañar a las personas en la elaboración y puesta en marcha de su propio itinerario de incorporación social tratando de priorizar a aquellas que se encuentran en situación de desventaja o exclusión social

Puesto: Tº Participación ciudadana

- Revisión de los procesos participativos municipales que están en marcha.
- Colaborar con el área económica para la puesta en marcha del proceso participativo en materia de presupuestos abiertos.
- Colaborar con el área de Educación y Participación Ciudadana en la dinamización de los procesos participativos.

Puesto: Dinamizador/a euskera

- Revisar los carteles y señales de competencia municipal de cara a la ciudadanía.
- Establecer contactos con comerciantes y hosteleros que quieran promocionar el euskera internamente.

Puesto: Empleado/a administrativo de archivos

- Digitalización de imágenes procedentes del archivo fotográfico municipal.
- Realización del trámite de consulta y/o solicitud de copias y puesta en marcha del mismo poniendo al alcance de la ciudadanía.
- Difusión para la recogida de fotos antiguas y de interés municipal, escaneo y tramitación administrativa de las mismas (Protección de datos y garantía de los derechos digitales, derechos de autor).

Cuarta. Condiciones de los aspirantes.

Para ser admitido/a, y en su caso, tomar parte en el proceso selectivo serán requisitos necesarios para todos los aspirantes:

j. Tener la nacionalidad de alguno de los estados miembros de la Unión Europea o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores/as.

k. También podrán tomar parte el cónyuge de los españoles y de los nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre que no estén separados de derecho, sean menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

l. En el supuesto de poseer nacionalidad extranjera no comunitaria, tener permiso de residencia legal en España y de trabajo.

m. No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto, sin perjuicio de lo dispuesto por la Ley 13/1982 sobre integración social de los minusválidos.

n. No haber sido separado/a, mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de las funciones públicas.

o. no desempeñar actividades declaradas incompatibles por la Ley 53/1984 de 26 de diciembre sobre de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, a la fecha de la toma de posesión, si resultare seleccionado.

p. Estar desempleado e inscrito como demandante de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo en el momento de la contratación.

q. Pertenecer a alguno de los siguientes colectivos:

   a. Personas titulares o beneficiarias de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI)

   - Menor de 35 años

   - Mayores de 45 años

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

- Personas desempleadas de larga duración; Se entiende por personas desempleadas de larga duración aquellas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo u otros Servicios Públicos de Empleo al menos 360 días en el periodo de los últimos 540 días previos a la fecha de la contratación.

- Personas en riesgo de exclusión social. Se entiende por personas en riesgo de exclusión social, además de los titulares de RGI y miembros de su unidad de convivencia, los siguientes:
  - Jóvenes mayores de 18 años y menores de 30, procedentes de Instituciones de Protección de Menores.
  - Personas con problemas de drogodependencias u otros trastornos adictivos que se encuentren en proceso de rehabilitación o reinserción social.
  - Personas internadas en centros penitenciarios cuya situación penitenciaria les permita acceder a un empleo y cuya relación laboral no esté incluida en el ámbito de aplicación de la relación laboral especial regulada en el artículo 1 del Real Decreto 782/2001, de 6 de julio, así como liberados/as condicionales y ex reclusos/as.
  - Personas Menores de edad internas incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, reguladora de la responsabilidad penal de los menores, cuya situación les permita acceder a un empleo y cuya relación laboral no esté incluida en el ámbito de aplicación de la relación laboral especial a que se refiere el artículo 53.4 del Reglamento de la citada Ley, aprobado por el Real Decreto 1774/2004, de 30 de julio, así como los que se encuentran en situación de libertad vigilada y ex internos.
  - Personas procedentes de centros de alojamiento alternativo autorizados por las autoridades competentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
  - Personas con discapacidad.
  - Mujeres con responsabilidades familiares. Se considerarán mujeres con responsabilidades familiares, aquellas que tengan a su cargo cónyuge y/o hijos/as menores de 26 años o mayores de 26 años incapacitados/as, o bien menores de 18 años acogidos/as, siempre que la renta media individual de los miembros de la unidad familiar no supere el 75% del Salario Mínimo Interprofesional. Estas circunstancias deberán ser debidamente acreditadas documentalmente.
  - Mujeres víctimas de violencia de género.

r. No haber sido contratado/a por el Ayuntamiento de Leioa en las convocatorias de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para los ejercicios 2019, 2020, o para acciones locales de promoción de empleo dirigidas especialmente a zonas y municipios desfavorecidos para el ejercicio 2019, así como en las convocatorias de ayudas para la contratación de personas jóvenes por entidades locales en el marco del Programa Operativo de Empleo Juvenil 2014-2020 para los ejercicios 2019 o 2020, salvo que no haya otros candidatos disponibles, circunstancia que será verificada e informada por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

Una vez realizada la preselección de los aspirantes, y atendiendo a las condiciones establecidas en la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2021, publicada mediante Resolución de 16 de junio de 2021 de la Directora General de LANBIDE- Servicio Vasco de Empleo, y reguladora del procedimiento, deberá reservarse un 30% del conjunto de las contrataciones realizadas a personas titulares o beneficiarias de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI), un 40 % a mujeres y un 15% a personas mayores de 55 años.

Los requisitos exigidos en la convocatoria deberán cumplirse durante todo el procedimiento de selección y hasta la fecha de contratación.

De manera específica para los puestos que a continuación se relacionan, serán requisitos necesarios:

**PROGRAMA: AUZOKO LAGUNTZAILEAK**

Puesto: Carpintero/a
- Experiencia mínima acreditada en Lanbide de 12 meses como oficial de 2ª de carpintería

Puesto: Pintor
- Experiencia mínima acreditada en Lanbide de 12 meses como oficial de 2ª de pintura

**PROGRAMA: POTENCIACIÓN DE LOS EJES ESTRATÉGICOS DEL MUNICIPIO**

Puesto: Tº Empresa/Comercio

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

- Titulación académica: Técnico superior en familia administración y gestión o comercio y marketing.

Puesto: Tº Turismo
- Titulación académica: Técnico superior en animación sociocultural y turística o familia profesional turismo

Puesto: Tº Acompañamiento
- Titulación académica: Técnico Superior Integración Social.

Puesto: Tº Participación Ciudadana
- Titulación académica: Grado en la rama de ciencias sociales y jurídicas
- Conocimientos de ofimática
- Experiencia mínima acreditada en Lanbide de 3 meses en procesos participativos o dinámicas grupales

Puesto: Dinamizador/a de euskera
- Titulación académica: grado universitario cursado en euskera
- Euskera: C-2

Puesto: Empleado/a administrativo de archivo
- Titulación académica: Ciclo Formativo de Grado medio o equivalente

Quinta. Admisión de los aspirantes.

Aprobadas las bases, se establecerá un plazo de cinco días hábiles para su publicación y difusión, con el fin de facilitar la actualización de los datos recogidos en LANBIDE- Servicio Vasco de Empleo por parte de las personas interesadas en este proceso. Dicha actualización podrá realizarse en Behargintza Leioa o en la oficina de Lanbide de referencia.

Finalizado este periodo, se solicitará a LANBIDE- Servicio Vasco de Empleo la remisión de candidaturas de acuerdo con los requisitos establecidos

Una vez remitidas las candidaturas por parte de Lanbide, dará inicio el proceso de selección de acuerdo con lo establecido en las presentes bases.

La convocatoria de las pruebas del proceso selectivo, así como las comunicaciones y notificaciones de la Comisión de Valoración, se realizarán por medio de su publicación en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, y en la página web municipal (www.leioa.eu)

Sexta. Comisión de Valoración.

La composición de la Comisión de valoración se hará pública en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal, junto con la aprobación de estas bases y atenderá a criterios de especialidad, siendo sus miembros nombrados de entre el personal funcionario a cargo del Ayuntamiento.
La Comisión no podrá constituirse sin la asistencia de más de la mitad de sus miembros, debiendo estar presentes, en todo caso, el Presidente y el Secretario. Las decisiones se adoptarán por mayoría de votos, resolviendo en caso de empate, el del que actúe como Presidente.

En las pruebas en que lo consideren conveniente, la Comisión podrá recabar la colaboración de asesores expertos en las materias de que se trate.

Los miembros la Comisión deberán abstenerse de intervenir, notificándolo a la Presidencia, y los aspirantes podrán recusarles, conforme a lo establecido en los artículos 28 y 29 de la vigente Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La Comisión resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de estas normas, así como lo que deba hacerse en los casos no previstos.

Séptima. Procedimiento de selección.

El proceso de selección constará de una única fase; Fase de Concurso. La selección se llevará a cabo por una Comisión de Valoración entre las candidaturas remitidas por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

B) Fase de Concurso:

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

La Comisión valorará los siguientes aspectos de acuerdo con los puestos específicos de cada programa. Para ello, considerará aspectos socioeconómicos y méritos laborales según los datos profesionales facilitados por Lanbide a través del Curriculum vitae así como la documentación aportada por las personas candidatas, tal y como se indica en el apartado de acreditación de méritos y criterios socioeconómicos

**Criterios socioeconómicos a valorar:**

1.- Pertenencia adicional a alguno de los colectivos referido en la convocatoria que exige un porcentaje mínimo de contratación: Titular o beneficiario de RGI, mujer o mayores de 55 años: 10 puntos por pertenencia a colectivo, hasta un máximo de 30 puntos.

> * Para la baremación de este criterio será necesario que la pertenencia a uno de estos colectivos no constituya el requisito de acceso de acuerdo con lo recogido en la base tercera “condiciones de los aspirantes”, ya que en este caso se considerará requisito de acceso y no mérito a valorar.

2.- Hijos/as a cargo: Se otorgarán 2 puntos por cada hijo menor de 26 años o mayor incapacitado/a a su cargo, hasta un máximo de 10 puntos.

3.- Cobro de prestaciones diferentes a la RGI: Se valorará con 5 puntos en caso de no percibir ningún tipo de prestación, 2 puntos en caso de que se perciba subsidio por desempleo y 1 punto en caso de que se perciba prestación por desempleo

**Méritos profesionales:**

- Formación: se valorará con 1 punto cada 20 horas, o parte proporcional, la formación relacionada con el puesto de referencia, hasta un máximo de 5 puntos.
- Experiencia; se valorará con 1 punto por cada mes de experiencia adicional acreditada en el puesto, hasta un máximo de 15 puntos.
- Euskera: se valorará con 2 puntos acreditar una titulación de nivel B1; B2 4 puntos y C1 6 puntos, en los puestos en los que no supone un requisito de desempeño.

Para la acreditación y valoración de los criterios socioeconómicos se considerará la siguiente documentación:

- Pertenencia a colectivos indicados en la convocatoria con porcentaje mínimo de contratación: Titular o beneficiario de RGI, mujer o mayores de 55 años. Estos datos se comprobarán de oficio de acuerdo con los datos facilitados por Lanbide.
- Hijos/as a cargo: presentación del libro de familia y certificado incapacidad, en su caso.
- Cobro de prestaciones diferentes a la RGI; Estos datos se comprobarán de oficio de acuerdo con los datos facilitados por Lanbide.

Para la acreditación y valoración de los méritos profesionales se considerará el Curriculum Vitae facilitado por Lanbide.

Octava. Calificación de los méritos y ejercicios y propuesta de la Comisión.

La calificación final de cada aspirante para la cobertura de los puestos descritos estará constituida por la suma de las puntuaciones obtenidas en el conjunto de las fases del proceso selectivo.

Caso de resultar algún empate en la suma de puntuaciones se decantará en favor del que más puntos obtenga en el conjunto de criterios socioeconómicos a valorar. En caso de persistir el empate, se considerarán aquellos colectivos establecidos por Lanbide, que no hubieran alcanzado el porcentaje mínimo de contratación establecido en el punto cuatro de la convocatoria. Por otro lado, si estos porcentajes ya estuvieran cubiertos se atenderá en el siguiente orden: mujeres, personas titulares o beneficiarias de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y personas mayores de 55 años. En última instancia se considerará el tiempo de alta como demandante de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

Terminada la calificación de los méritos y, en su caso, de los ejercicios, la Comisión hará público en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, la relación de los aspirantes que hayan superado el proceso selectivo en orden de mayor a menor puntuación. Contra dicho acuerdo los aspirantes podrán reclamar en el plazo de tres días hábiles desde el día siguiente al de su publicación. Estas reclamaciones serán resueltas por la Comisión de Valoración.
Resueltas, en su caso, las reclamaciones contra la propuesta publicada, la Comisión de Valoración elevará

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

su propuesta al órgano competente.

Novena. Presentación de documentación

El aspirante propuesto presentará, en el plazo de tres días hábiles, contados a partir de la publicación del acta de la Comisión la siguiente documentación:

a) Declaración responsable de no haber sido separado mediante expediente disciplinario de cualquiera de las administraciones, de no hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas, y de no estar incluido en alguna de las causas de incompatibilidad previstas en la Ley 32/1983 de 20 de diciembre sobre incompatibilidades por el ejercicio de funciones públicas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y legislación de desarrollo.

b) Fotocopia debidamente compulsada del DNI y de los títulos exigidos en la convocatoria.

Décima. Propuesta para la contratación.

Acreditados los requisitos exigidos, la Comisión elevará a la Alcaldía la propuesta para la contratación de las personas seleccionadas, de acuerdo con la convocatoria de ayudas reguladora de este proceso

Undécima. Incidencias.

La Comisión queda facultada para resolver las dudas que se presenten y adoptar los acuerdos necesarios para el buen orden del Concurso, de acuerdo con lo establecido en las presentes bases.

Los actos administrativos derivados de las bases de la convocatoria y de la actuación de la Comisión podrán ser impugnados en los plazos y forma previstos en la en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso - Administrativa 29/98, de 13 de julio.

Alkateak, horrela agindu eta izenpetu du
Idazkariak kontuan hartu du, Ebazpen liburuan transkribatzeko,



Así lo mandó y firmó el Sr. Alcalde,
Tomado en razón por la Secretaria para la transcripción al libro de resoluciones,



Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 13523646177336674000 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion